Horretarako, iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera kontatutako 15 egun naturaleko epean, Eranskinean aipatzen diren Inkestekin zerikusia duten datuak aurkeztu beharko dituzte; horiei dagozkien galdetegiak haien esku daude Ordezkaritza honetan: Zabalgune Plaza 3, beheko solairua, Bilbo. Edozein zalantzarik izanez gero, edo zerbait argitu nahi izanez gero, telefono hauetara deitu dezakete aipatutako epearen barruan: 94.470.28.09 eta 94.470.27.82.

Epe hori amaitzen bada errekerimendu honi erantzun gabe, arau-hauste horri dagokion zehapen-espedientea hasteari ekingo zaio, Funtzio Estatistiko Publikoaren maiatzaren 9ko 12/1989 Lege horrekin eta Zehapen Prozedura Administratiboaren Araudiarekin bat etorriz –irailaren 10eko 1572/19993 Errege Dekretuaren bidez onartua–.

Para ello deberán presentar, en el plazo de 15 días naturales contados a partir del siguiente a la fecha de publicación de este anuncio, los datos requeridos relacionados con las Encuestas que en Anexo se citan, y cuyos cuestionarios se encuentran a su disposición en esta Delegación, sita en Plaza del Ensanche, 3 bajo –Bilbao– En caso de cualquier duda o aclaración pueden llamar a los teléfonos 94.470.28.09 y 94.470.27.82, dentro del plazo mencionado.

Transcurrido dicho plazo sin haber sido atendido el presente requerimiento, se procederá al inicio del correspondiente expediente sancionador de acuerdo con lo dispuesto en la citada Ley 12/1989, de 9 de mayo, de la Función Estadística Pública, y en su Reglamento del Procedimiento Administrativo Sancionador, aprobado por el Real Decreto 1572/1993, de 10 de setiembre.

Aipatutako eranskina: / Anexo que se cita:

| *Izena/Enpresaren izena Nombre/Razón Social* | *Herria Localidad* | *IFZ NIF* | *Inkesta eta Aldia Encuesta y Periodo* |
|---|---|---|---|
| ZUBELZU S.A. | IRUN | A20089462 | Estadística de los Indices de Producción Industrial – mes de Enero 2008. |
| ZUBELZU S.A. | IRUN | A20089462 | Estadística de los Indices de Precios Industriales – mes de Enero 2008. |
| ZUBELZU S.A. | IRUN | A20089462 | Estadística de los Indices de Cifras de Negocios-Indices de Entrada de Pedidos – mes de Enero 2008. |

Bilbo, 2008ko otsailaren 28a.—Ana Marín Pérez, Estatistika Institutu Nazionalaren Bizkaiko Probintzi Ordezkaria.

(467) (2500)

Bilbao, a 28 de febrero de 2008.—La Delegada Provincial del Instituto Nacional de Estadística en Vizcaya, Ana Marín Pérez.

(467) (2500)

# 6 AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIOA / ADMINISTRACION DE LA COMUNIDAD AUTONOMA 6

## EUSKO JAURLARITZA

### JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA

**Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritza**

Harreman Kolektiboak Zk. 56/06-F. 1541

*ERABAKIA, 2008ko otsailaren 25ekoa, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saileko Gipuzkoako Lurralde ordezkariena. Honen bidez ebazten da 2006-08rako Gipuzkoako Iragantzaileen hitzarmen kolektiboa erregistratu, gordailu egin eta argitaratzea (hitzarmen kodea zk. 2001495).*

AURREKARIAK

*Lehenengoa.* 2008ko urtarrilaren 22an aipatutako hitzarmena aurkeztu da, ordezkaritza honetan, ATEIA-k, enpresarien ordezkapenean, eta ELA, LAB, eta CC.OO. sindikatuek, langileen ordezkapenean, 2008ko urtarrilaren 18an sinaturik.

## GOBIERNO VASCO

### DEPARTAMENTO DE JUSTICIA, EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL

**Delegación Territorial de Gipuzkoa**

Convenios Colectivos N.º 56/06-F. 1541

*RESOLUCIÓN de 25 de febrero de 2008, de la Delegada Territorial de Gipuzkoa del Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social, por la que se dispone el registro, publicación y depósito del Convenio Colectivo de Transiitorios de Gipuzkoa de 2006-08 (código de convenio n.º 2001495).*

ANTECEDENTES

*Primero.* El día 22 de enero de 2008 se ha presentado en esta delegación el convenio citado, suscrito por ATEIA, en representación de los empresarios, y por ELA, LAB, y CC.OO., en representación de los trabajadores, el pasado 18 de enero de 2008.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

*Lehenengoa.* Langileen Estatutu Legearen 90.2 artikuluak, martxoaren 24ko 1/1995 Errege Dekretu Legegilea (1995-3-29ko *Estatuko Aldizkari Ofiziala*) aurreikusten duen eskuduntza lan agintaritza honi dagokio, urriaren 18ko 315/2005 Dekretuko 24.1.g artikuluak –Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saileko egitura organika eta funtzionala ezartzen duena (2005-10-27ko *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria*)– dionarekin bat etorriz eta martxoaren 2ko 39/1981 Dekretuarekin (1981-4-2ko *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria*) eta maiatzaren 22ko 1040/1981 Errege Dekretuarekin (1981-6-6ko *Estatuko Aldizkari Ofiziala*) –hitzarmen kolektiboen erregistroari buruzkoak– lotuta.

*Bigarrena.* Sinatutako hitzarmenak betetzen ditu lehen aipatutako Langileen Estatutu Legearen 85, 88, 89 eta 90 artikuluek xedatutako baldintzak.

Honen ondorioz,

ERABAKI DUT

*Lehenegoa.* Hitzarmen Kolektiboen Erregistroaren Gipuzkoako Lurralde Atalean inskribatu eta gordailu egiteko agintzea eta aldeei jakinaraztea.

*Bigarrena.* Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitara dadin xedatzea.

*Hirugarrena.* Ebazpen honen aurka, adminiztrazio-bidea amaitzen ez duena, gora jotzeko errekurtsoa jarri ahal izango da Lan eta Gizarte Segurantzako zuzendariaren aurrean, hilabeteko epean, azaroaren 26ko Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 30/1992 Legeko 114 artikuluan eta hurrrengoetan ezarritakoarekin bat etorriz.

Donostia, 2008ko otsailaren 25a.—Gemma Jauregi Beldarrain, Lurralde Ordezkaria.

(82212) (2433)

FUNDAMENTOS DE DERECHO

*Primero.* La competencia prevista en el art. 90.2 de la Ley del Estatuto de los Trabajadores, Real Decreto Legislativo 1/1995, de 24 de marzo (*Boletín Oficial del Estado* de 29-3-1995) corresponde a esta autoridad laboral de conformidad con el art. 24.1.g del Decreto 315/2005, de 18 de octubre (*Boletín Oficial del País Vasco* de 27-10-2005) por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social, en relación con el Decreto 39/1981, de 2 de marzo (*Boletín Oficial del País Vasco* de 2-4-1981) y con el Real Decreto 1040/1981, de 22 de mayo (*Boletín Oficial del Estado* de 6-6-1981) sobre registro de convenios colectivos.

*Segundo.* El convenio ha sido suscrito de conformidad con los requisitos de los artículos 85, 88, 89 y 90 de la referenciada Ley del Estatuto de los Trabajadores.

En su virtud,

RESUELVO

*Primero.* Ordenar su inscripción y depósito en la Sección Territorial de Gipuzkoa del Registro de Convenios Colectivos, con notificación a las partes.

*Segundo.* Disponer su publicación en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa.

*Tercero.* Contra la presente resolución, que no agota la vía administrativa, podrán los interesados interponer recurso de alzada ante el Director de Trabajo y Seguridad Social en el plazo de un mes, de acuerdo con lo establecido en los artículos 114 y siguientes de la Ley 30/1992 de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

Donostia-San Sebastián, a 25 de febrero de 2008.—La Delegada Territorial, Gemma Jauregi Beldarrain.

(82212) (2433)

## GIPUZKOAKO ENPRESA IRAGANTZAILEEN HITZARMEN PROBINTZIALA 2006 - 2007 - 2008

### I. KAPITULUA

*1. artikulua. Lurralde Eremua.*

Hitzarmen honek honako hauei behartzen die: Gipuzkoako probintzian kokaturiko Iragantzaileen enpresa orori, baita beren helbide soziala beste punturen batean izanik, establezimenduak, zentroak edo sukurtsalak aipatu probintzian dituztenei ere, beraietara atxikitako pertsonalari dagokionean, hitzarmen onuragarriagoa denean salbu.

*2. artikulua. Funtzio Eremua.*

Hitzarmenak behartzen die soilik edo bereziki edota jarduera nagusiko izaeraz, Nazioarteko Garraioak antolatzera dedikatzen diren enpresei, eta nolanahi ere aduana iragaite erregimenean administrazioko baimena bidez gaituak egon beharko luketen jarduerak burutzen dituzten haiei, aipaturiko jarduerak honako hauek direlarik:

Norbere izenean garraiolariarekin kontratatzea, aldi berean, baita norbere izenean ere, kargatzaile eraginkorrarekin kontratatu duten garraio baten kargadore gisa, honen aurrean, garraiolariaren funtzioa betez.

## CONVENIO PROVINCIAL DE EMPRESAS TRANSITARIAS DE GIPUZKOA 2006 - 2007 - 2008

### CAPITULO I

*Artículo 1.º Ambito territorial.*

El presente Convenio obliga a todas las empresas de Transitarios establecidas en la Provincia de Gipuzkoa y a las que contando con domicilio social en otro punto, tengan establecimientos, centros o sucursales en dicha Provincia, en cuanto al personal adscrito a ellos, salvo Convenio más favorable.

*Artículo 2.º Ambito funcional.*

El Convenio obliga a todas las empresas que se dedican única y exclusivamente o con carácter de actividad principal, a organizadores de los transportes internacionales y en todo caso de aquellos que efectúen en régimen de tránsito aduanero, actividades para las que deberán estar habilitados mediante autorización administrativa, siendo dichas actividades las siguientes:

Contratación en nombre propio con el transportista, como cargadores de un transporte que a su vez hayan contratado, asimismo en nombre propio, con el cargador efectivo, ocupando frente a éste, la función de transportista.

Kargatzaileak izendatutako garraiolariaren eskura gordailuzain bezala igorritako merkantzien harrera eta xedapena.

*3. artikulua. Pertsonal Eremua.*

Hitzarmenak ukitzen dituen enpresa orotan beren zerbitzuak prestatzen dituen pertsonal orori aplikatzekoa izango da eta honen indarraldian sartzen den orori, bakar-bakarrik Sozietatearen forma juridikoa duten enpresetan Kontseilari kargua betetzera soilik mugatzen diren jarduerak geratuko dira salbu.

Hitzarmen honetan jasotzen diren xedapenak ez dira aplikagarriak izango gaur egun Hitzarmen faboragarriagoa aplikatzen zaien Enpresa haietako pertsonalari, testu honen aplikaziotik kanpo geratuko direlarik bereziki harik eta orain duten hura bezain faboragarria izaten ez den bitartean.

Hitzarmen honek gutxienekoaren izaera du, langileen baldintzak hobetzen dituzten edozein arlotako itunak gauzatzeko aukera utziz.

*4. artikulua. Denbora Eremua.*

Hitzarmen Kolektiboak hiru urteko indarraldia izango du. 2006ko urtarrilaren 1ean sartuko da indarrean, bere argitalpenaren data edozein delarik ere, eta 2008. urteko abenduaren 31 arte iraungo du.

Automatikoki aldarrikatua geratuko da 2008. urteko irailaren 1etik aurrera, data horretatik aurrera 2009. urterako Hitzarmen Kolektiboaren negoziazioak hasi ahal izango direlarik.

## II. KAPITULUA

*5. artikulua. Alokairuak.*

Hitzarmen alokairua eta antzinatasuna ondoko hauen arabera ezarriko dira:

a) 2006. urrtean 2005eko abenduaren 31n indarrean zegoena %4,5 gehituko da.

b) 2007. urrtean 2006ko abenduaren 31n indarrean zegoena %3,5 gehituko da.

c) 2008. urrtean 2007ko abenduaren 31n indarrean zegoena %5,0 gehituko da.

Nolanahi ere, laneko zentroetan aplikatzen diren eta Hitzarmen honetan aurreikusitakoak baino handiagoak izaten diren gehikuntzak mantendu egingo dira.

Enpresa Iragantzaileetako langileei 2006., 2007. eta 2008. urtean jasotzea dagokien gutxienezko alokairuak, Hitzarmen honetako I., II. eta III. Eranskinetan jasota daude.

Langileen alokairu errealak gutxienez, aurreko hitzarmenean kategoria profesional bakoitzerako indarreango tauletatik eta Hitzarmeneko I., II. eta III. Eranskinetan jasotakoen artetik pezetatan ateratzen den diferentzian gehituko dira.

*6. artikulua. Aparteko haborokinak.*

Hitzarmenak ukitzen duen pertsonal orok urtero lau haborokin jasoko ditu eta martxoa, ekaina eta iraileko hilabeteen azken lanegunean ordainduko zaizkio. Gabonetako haborokina abenduaren 22a aurretik ordainduko da. Alokairu errealeko hileroko baten zenbateko berdinaz ordainduko dira.

La recepción y puesta a disposición del transportista designado por el cargador, de las mercancías a ellos remitidas como consignatarios.

*Artículo 3.º Ambito personal.*

El Convenio será de aplicación a todo el personal que preste sus servicios en las empresas afectadas por él y a todo aquel que ingrese durante la vigencia del mismo, quedando excluidas únicamente las actividades que se limitan pura y simplemente al desempeño del cargo de Consejero en las empresas que revistan la forma jurídica de Sociedad.

Las disposiciones contenidas en el presente Convenio, no serán de aplicación al personal de aquellas Empresas que en la actualidad les estén aplicando un Convenio más favorable, quedando expresamente excluidas de la aplicación del presente texto, en tanto en cuanto siga siendo menos favorable que aquél, por el que se rigen.

El presente Convenio tiene carácter de mínimos, dejando la posibilidad a pactos de cualquier ámbito en los que se mejoren las condiciones de los trabajadores.

*Artículo 4.º Ambito tiempo.*

El Convenio Colectivo tendrá una vigencia de tres años. Entrará en vigor el 1 de enero de 2006, cualquiera que sea la fecha de su publicación y durará hasta el 31 de diciembre de 2008.

Quedará automáticamente denunciado a partir del 1 de setiembre de 2008, pudiéndose iniciar desde esta fecha las negociaciones del Convenio Colectivo para el año 2009.

## CAPITULO II

*Artículo 5.º Salarios.*

El salario convenio y antigüedad se establecerá atendiendo a lo siguiente:

a) En el año 2006 los salarios vigentes a 31 de diciembre de 2005 se incrementarán en un 4,5%.

b) En el año 2007 los salarios vigentes a 31 de diciembre de 2006, se incrementarán en un 3,5%.

c) En el año 2008 los salarios vigentes a 31 de diciembre de 2007, se incrementarán en un 5,0%.

Se mantendrán, en todo caso, los incrementos que se estén aplicando en los centros de trabajo y que resulten superiores a los previstos en el presente Convenio.

Los salarios mínimos que corresponde percibir a los trabajadores de las empresas Transitarias para los años 2006, 2007 y 2008 se recogen en los Anexos I, II y III de este Convenio.

Los salarios reales de los trabajadores se incrementarán como mínimo, en la diferencia en euros que resulta para cada categoría profesional de las tablas vigentes del convenio precedente y las recogidas en los Anexos I, II y III del presente Convenio.

*Artículo 6.º Gratificaciones extraordinarias.*

Todo el personal afectado por el Convenio, percibirá anualmente cuatro gratificaciones que serán abonadas el último día hábil de los meses de marzo, junio y setiembre. La de Navidad se abonará antes del 22 de diciembre. Se abonarán por un importe igual a una mensualidad de salario real.

Aparteko haborokinen konputua hiruhilekoa izango da. Hala, lanean hasten den edo uzten duen langileak ordainsariak sortzen diren hiruhilekoan lan egindako denboraren zati proportzionala jasoko du, gainerakoak bere osotasunean jasoz baldin eta sortzen diren hiruhilekotan lan egiten badu.

*7. artikulua. Antzinatasuna.*

Antzinatasun osagarri gisa, hirurtekoak finkatzen dira, profesional kategoriarako testu honetako I., II eta III. Eranskinetan azaltzen den zenbatekoa izango dutelarik.

Hirurtekoak, hirurteko bakoitza betetzen den hilabete naturaleko lehen egunetik hasita sortuko dira, eta hori langilea enpresan sartzen den egunetik konputatzen hasiko da.

Nolanahi ere «ad personam» errespetatuko dira gaur egun zentzu honetan egon litezkeen baldintzarik onuragarrienak.

*8. artikulua. Dietak eta kilometrajeak.*

Enpresa Zuzendaritzaren erabakiz eginiko desplazamendu baten ordainetan langile batek janari eta afariarengatik dietaren kontzeptupean jasoko duen zenbatekoa 11,1197 eurokoa izango da 2006an, 11,5089 eurokoa izango da 2007an eta 2008an 12,0843 eurokoa.

Kilometrajearen kontzeptupean, 2006an, enpresak 0,2556 euro ordainduko du kilometro bakoitzeko lan izaera bakarbakarrik duten desplazamenduetan, langileak bere jabetzako ibilgailua erabiltzen duenean, beti ere. 2007an 0,2645 euro ordainduko du eta 2008an 0,2777 euro.

Nolanahi ere, «ad personam» errespetatuko dira gaur egun kontzeptu honetan aplika litezkeen baldintzarik onuragarrienak.

III. KAPITULUA

*9. artikulua. Lan Jardunaldia.*

Urteko konputuan gehiengo lan-jardunaldia 1.694, 1.690 eta 1.686 ordutakoa izango da 2006, 2007 eta 2008. urteetarako, hurrenez hurren.

Larunbateko lansaioa gehienez ere 12:00ak arte izango da.

Edonola ere, pertsonalak hiru larunbatetatik bi jai egiteko eskubidea izango du.

*10. artikulua. Txandakako lana.*

Langileek, enpresak horrela eskatuta, 8:00etatik 22:00ra bitarteko bi txandatan lan egiten dutenean hileko alokairuaren gainetiko %4 jasoko dute, txandakako osagarri bezala.

Langileek, enpresak horrela eskatuta eta eransandakoekin aldez aurretik adostuta, bi txandatan lan egiten dutenean hileko alokairuaren gainetiko %15 jasoko dute, txandakako plusa bezala.

*11. artikulua. Gaueko lana.*

Enpresak, ohiko txanda bezala gauez lan egiteko langile berria kontratatzen badu, hileko alokairuaren gainetiko %30eko gauekotasun osagarria ordaindu beharko dio eragindakoari.

El cómputo de las gratificaciones extraordinarias, será trimestral. Así, el personal que ingrese o cese, percibirá la parte proporcional al tiempo trabajado del trimestre en que se devenguen las pagas. Percibiendo la totalidad de las restantes, si trabaja en los trimestres que se devengan.

*Artículo 7.º Antigüedad.*

Como complemento de antigüedad, se fijan trienios que para categoría profesional tendrán la cuantía que figura en los Anexos I, II y III del presente texto.

Los trienios se devengarán a partir del primer día del mes natural en que se cumpla cada trienio, computándose los mismos desde la fecha de ingreso del trabajador en la empresa.

Se respetarán en todo caso «ad personam» las condiciones más beneficiosas, que en este aspecto pudieran existir en la actualidad.

*Artículo 8.º Dietas y kilometrajes.*

El importe que el trabajador percibirá en concepto de dieta por comida o cena con ocasión de un desplazamiento efectuado por decisión de la Dirección de la Empresa durante 2006 será de 11,1197 euros, en 2007 de 11,5089 euros y en 2008 de 12,0843 euros.

En concepto de kilometraje, durante el año 2006, la empresa abonará 0,2556 euros por kilómetro en los desplazamientos de carácter exclusivamente laboral, cuando el conductor utilice vehículo de su propiedad. En el año 2007 abonará 0,2645 euros y en 2008 0,2777 euros.

Se respetarán en todo caso «ad personam», las condiciones más beneficiosas, que en este aspecto pudieran existir en la actualidad.

CAPITULO III

*Artículo 9.º Jornada laboral.*

La jornada laboral máxima en cómputo anual para 2006, 2007 y 2008 será de 1.694, 1.690 y 1.686 horas respectivamente.

La jornada de trabajo de los sábados se realizará como máximo hasta las 12.00 horas.

En todo caso, el personal tendrá derecho a librar dos sábados por cada tres.

*Artículo 10.º Turnicidad.*

Cuando a requerimiento de la empresa, los trabajadores realicen su jornada a relevos en dos turnos entre las 8:00 y las 22:00 horas, los trabajadores afectados percibirán en concepto de plus de turnos un 4 por ciento del salario anual mensualizado.

Cuando a requerimiento de la empresa, previo acuerdo con los trabajadores afectados estos, realicen su trabajo en tres turnos de mañana, tarde y noche, la empresa abonará en concepto de plus de turnicidad y nocturnidad, un 15% del salario anual mensualizado a cada trabajador afectado.

*Artículo 11.º Nocturnidad.*

Cuando la empresa contrate nuevo personal para trabajar de forma habitual en turno de noche, deberá abonar al trabajador afectado, un plus de nocturnidad del 30% del salario anual mensualizado.

Ohiz kanpoko egoeratan eta langileekin adostu eta gero, 22:00tik 8:00etara bitartean lanean jardun behar badute, honela ordainduko zaie gaueko lana:

— Gaueko jarduna hiru ordutik gora ez denean, 9,02 euro/eguneko gaueko lanen ordainetan.

— Gaueko jardura hiru ordutik gora denean, 30,05 euro/eguneko, gaueko lanen ordainetan.

*12. artikulua. Jaiegunak.*

Autonomi Elkarterako Eusko Jaurlaritzak finkaturiko lanegutegian ezartzen diren jaiez gain, ondoko egunerdi hauek ere jai izango dira: Ekainaren 29, abenduaren 24 eta 31.

Hitzarmen honetara loturiko langileek, urtean 3 jaiegun, gai norberako moduan, izango dituzte legez ezarrita eta hitzarmenaren 14 artikuluan aurreikusita daudenetatik at.

Egun horiek gozatzeko datak Enpresako Zuzendaritzaren eta langileen arteko akordio bidez ezarriko dira.

*13. artikulua. Oporrak.*

Hitzarmen honetan ukituriko pertsonal ororentzat, 28 lanegunetako ordainsaritutako urteko oporren gozamen aldi bat ezarrri da. Horretarako larunbatak lanegun bailitzan kontsideratuko dira, 14 jaiegunetakoren batekin bat egiten ez duten bitartean.

Oporrak bi alditan hartuko dira gehienez, baldin eta aldeen arteko akordiorik ez badago.

Nolanahi ere «ad personan» gaur egun opor egunak gozatzeko kopuruari dagokionean egon litezkeen baldintzarik onuragarrienak errespetatuko dira.

*14. artikulua. Ordaindutako Baimenak.*

Langileek ordaindutako ondoko baimen hauetarako eskubidea izango dute:

a) Langilearen ezkontza: 18 egun natural.

b) Guraso, seme-alaba, anai-arreben ezkontza: Egun natural 1.

c) Emaztearen erditzea: 2 egun natural, alabaina 5era luza daiteke baldin eta distantzia 150 kilometro baino gehiagokoa bada.

d) Ezkontidearen heriotza: 5 egun natural.

e) Ezkontidearen gaixotasun larria: 2 egun natural, halere 5era luza daiteke baina hauek ordainsari eskubiderik gabe.

f) Guraso, seme-alaba edo anai-arreben heriotza: 2 egun natural ordainduta, 5era luza daitekeena, baldin eta distantzia 150 kilometro baino gehiagokoa bada. Eskubide hau ezkon-ahaideengana ere hedatuko da.

g) Guraso, seme-alaba edo anai-arreben gaixotasun larria: 2 egun natural ordainduta, 5era luza daitekeena baina hauek ordainsari eskubiderik gabe. Eskubide hau ezkon-ahaideengana ere hedatuko da.

h) Aiton-amonen edo biloben heriotza: Egun natural 1. Eskubide hau ezkon-ahaideengana ere hedatuko da.

i) Etxebizitzaz aldatzea: Egun natural 1.

j) Agiri publiko propioak izapidetzeko behar den denbora.

Cuando por circunstancias extraordinarias de la empresa, previo acuerdo con los trabajadores, estos deban de realizar parte o la totalidad de la jornada ordinaria, entre las 22:00 y las 8:00 horas, el abono de la nocturnidad se realizara de la siguiente forma y con las siguientes cuantías:

— Cuando el trabajador no supere en jornada nocturna 3 horas, percibirá 9,02 €/día en compensación nocturna.

— Cuando el trabajador supere las tres horas en jornada nocturna percibirá 30,05 €/día en compensación nocturna.

*Artículo 12.º Festivos.*

Además de las fiestas que se establecen en el calendario laboral elaborado por el Gobierno Vasco para la Comunidad Autónoma, se vacarán los siguientes medios días: 29 de junio, 24 y 31 de diciembre.

Los trabajadores sujetos al presente Convenio, dispondrán de 3 días festivos al año, en concepto de «asuntos propios», independientemente de los establecidos legalmente y de los previstos en el Artículo 14.º del presente Convenio.

El disfrute de dichos días se establecerá de mutuo acuerdo entre la Dirección de la Empresa y los trabajadores.

*Artículo 13.º Vacaciones.*

Se establece para todo el personal afectado por el presente Convenio, un período de disfrute de vacaciones anuales retribuidas, de 28 días laborables. A tales efectos se considerarán los sábados como laborables, siempre que no coincidan con alguno de los 14 festivos.

Su disfrute se realizará como máximo en dos periodos, salvo que medie acuerdo entre las partes.

Se respetarán en todo caso «ad personam», las condiciones más beneficiosas que en cuanto al número de días a disfrutar pudieran existir en la actualidad.

*Artículo 14.º Licencias retribuidas.*

Los trabajadores tendrán derecho a las licencias retribuidas siguientes:

a) Matrimonio del trabajador: 18 días naturales.

b) Matrimonio de padres, hijos, hermanos: 1 día natural.

c) Alumbramiento de esposa: 2 días naturales, ampliables a 5 en caso de que la distancia sea superior a 150 kilómetros.

d) Muerte del cónyuge: 5 días naturales.

e) Enfermedad grave del cónyuge: 2 días naturales, ampliables a 5, estos sin derecho a retribución.

f) Muerte de padres, hijos o hermanos: 2 días naturales retribuidos, ampliables a 5 en caso de que la distancia sea superior a 150 kilómetros. Se extenderá incluso a los parientes en grado de políticos.

g) Enfermedad grave de padres, hijos o hermanos: 2 días naturales retribuidos, ampliables a 5, estos últimos sin retribución. Se extenderá incluso a los parientes en grado de políticos.

h) Muerte de abuelos o nietos: 1 día natural. Se extenderá incluso a los parientes en grado de políticos.

i) Traslado de domicilio: 1 día natural.

j) El tiempo necesario para tramitación de documentos públicos propios.

Eskubide berbera onartuko zaie, dagozkien ordaindutako baimenak gozatzeko, ezkontzako loturarik gabe beren elkarbizitza urte batez goitik kreditatu, eta horri buruz Udalak luzatutako ziurtagiria aurkezten duten bikoteei.

*15. artikulua. Eszedentziak.*

Gutxienez enpresan hiru urteko antzinatasuna duten langileek, ordainsaririk gabeko eszedentzia hartzeko eskubidea izango dute, behar bezala egiaztatutako egoera hauetan: Aitaren, amaren, ezkontidearen, langilearen zein ezkontidearen seme-alaben gaixotasun larria denean, gaixotasunak irauten duen bitartean, gehienez ere urtebete. Eskubide bera izango dute ezkondu gabeko bikoteek, urte batetik gora elkarrekin bizi direla egiaztatzen dutenean, Udalak egindako ziurtagiriarekin egiaztatu ere.

Gaixotasun larritzat hartuko da gutxienez bi eguneko ospitaleratzea dakarrenean.

Eszedentzia egoeran emandako denbora ez da inolako eraginetarako zenbatuko.

Eszendentzia emateko arrazoia desagertutakoan, 30 egun izango ditu langileak lehengo lanpostura edo antzekoren batera itzultzeko, bere lanbide kategoriarekin. Horrela egiten ez badu, behin betiko baja emango zaio enpresan.

Eszedentzia honetan kointziditzen duen langile kopurua plantilaren %4 izango da, frakzio hamartarra borobilduz. Gutxienekoa plantilako langile 1 izango da.

V. KAPITULUA

*16. artikulua. Aseguru Poliza.*

Sektoreko enpresen aldetik, egokiena deritzoten prozedura erabiliz, langile guztiei ondoko arrisku guztiak estaliko dituen Aseguru Poliza bat egiteko betekizuna ezartzen da:

— 13.900,07 euro heriotza kasuan edozein gertakizunengatik.

— 13.900,07 euro edozein lanetarako elbarritasun iraunkorraren kasuan edozein gertakizunengatik.

— 13.900,07 euro norberaren lanerako elbarritasun iraunkorraren kasuan edozein gertakizunengatik.

— 34.750,19 euro lan-istripu baten heriotza kasuan.

Nolanahi ere «ad personam» errespetatuko dira gaur egun alderdi honetan egon litezkeen baldintzarik onuragarrienak.

*17. artikulua. Laguntza osagarria lan istripu eta gaixotasun arruntarengatiko aldi bateko ezintasunari.*

Hitzarmen honek ukitzen dituen enpresek alokairu errealaren %100a arte osatuko die beren langileei, indarrean dagoen Aldi baterako Ezintasun, gaixotasun arrunt, lanez kanpoko istripu, lan-istripu eta gaixotasun profesionalen kasuetan.

Nolanahi ere «ad personam» errespetatuko dira gaur egun alderdi honetan egon litezkeen baldintzarik onuragarrienak.

Se reconocerá el mismo derecho, al disfrute de los permisos retribuidos que les puedan corresponder, a las parejas que sin vínculo matrimonial, acrediten su convivencia por un período superior a un año y mediante el correspondiente certificado expedido por el Ayuntamiento.

*Artículo 15.º Excedencias.*

Los trabajadores con una antigüedad de al menos 3 años en la empresa, tendrán derecho a un periodo de excedencia, sin retribución, con motivo de enfermedad grave, debidamente acreditada, de padres, madres, cónyuge e hijos, tanto del trabajador como de su cónyuge, en tanto dure la enfermedad, con un máximo de 1 año. Se reconocerá el mismo derecho a las parejas que sin vínculo matrimonial, acrediten su convivencia por un período superior a un año y mediante el correspondiente certificado expedido por el Ayuntamiento.

Al respecto, se considerará enfermedad grave la que requiera al menos dos días de hospitalización.

A ningún efecto se computará el tiempo que el trabajador permanezca en esta situación de excedencia.

Desaparecida la causa que motivó la excedencia, el trabajador dispondrá de 30 días naturales para reincorporarse al centro de trabajo, en su anterior o similar puesto e igual categoría profesional. En caso de no hacerlo causará baja definitiva en la empresa.

El número máximo de trabajadores que puedan acogerse a esta excedencia corresponderá al 4 por ciento de la plantilla, redondeando al alza los resultados con decimales. El minino será 1 trabajador por plantilla.

CAPITULO IV

*Artículo 16.º Poliza seguro.*

Se establece la obligación por parte de las empresas del sector de suscribir por el procedimiento que estimen más oportuno, una Póliza de Seguro a todos los trabajadores, que cubra los siguientes riesgos:

— 13.900,07 € en caso de muerte por cualquier contingencia.

— 13.900,07 € en caso de invalidez absoluta permanente por cualquier contingencia.

— 13.900,07 € en caso de invalidez total y permanente por cualquier contingencia.

— 34.750,19 € en caso de muerte por accidente de trabajo.

Se respetarán en todo caso «ad personam», las condiciones más beneficiosas que en este aspecto pudieran existir en la actualidad.

*Artículo 17.º Complemento a la incapacidad temporal por accidente de trabajo y enfermedad común.*

Las empresas afectadas por el presente Convenio complementarán a sus trabajadores hasta el 100 por ciento del salario real y vigente en los casos de Incapacidad Temporal, por enfermedad común, accidente no laboral, accidente de trabajo y enfermedad profesional.

Se respetarán en todo caso «ad personam» las condiciones más beneficiosas que en este aspecto pudieran existir en la actualidad.

*18. artikulua. Azterketa medikoa.*

Enpresek, urtero beren plantilako langileak azterketa mediko bat egitera behartuko dituzte, zeinak gutxienez ondoko alderdi hauek bete beharko dituen:

Arnas-aparatua:

— X izpiak.

— Auskultazioa.

Zirkulazio-aparatua:

— Arteria-presioa.

Liseri-aparatua:

— Urdaila.

— Gibela.

— Herniak.

Analisiak:

— Odolarena: Hematiak, Leukozitoak, Kolesterol, Azido Urikoa, Glukosa, G.T.P. eta G.O.T.

— Gernuarena: Albumina, Sedimentua, Azetona eta Glukosa.

— Elektrokardiograma.

Ginekologia:

— Zitologia.

— Mamografia.

*19. artikulua. Hizkuntzak.*

Enpresek hizkuntz ikasketen kostuen %50a ordainduko dute, aldez aurretik langileak ordaindu eta asistentzi eta aprobetxamendu ziurtagiria aurkeztu ostean, baldin eta ikastaroak lanjardueratik kanpo burutzen direnean beti ere.

Laguntza hauek, euskarara eta Europako Elkarte Ekonomikoko Estatuetako hizkuntza nagusietara mugatuko dira.

Langileak hizkuntza bat edo batzuk ezagutzen ez dituen kasuan eta bere lan-jarduera bete ahal izateko enpresak horietariko baten ezagutza eskatuz gero, langileak eskatutako hizkuntzen ezagutza ezin hobea lortu arteko beharrezko ikastaroak jasoko ditu enpresaren kontura.

*20. artikulua. Euskara.*

Probintzia eremuko Hitzarmen honetara lotetsitako enpresak ezari-ezarian eta behar berrien arabera, bertan dagoen dokumentazioa ele bietan jartzen hasiko dira (nominak, gutunak, orri-inprimakiak, taloiak, etab.) baita errotulu eta iragarkiak ere.

*21. artikulua. Lanerako arropa.*

Biltegiko langileak beren lan-jarduera betetzeko behar duten arropa egokiaz hornituko ditu enpresak.

## V. KAPITULUA

*22. artikulua. Kategoriaren definizioa.*

— Zerbitzu Burua.

Bere ekimen propioaz eta Enpresa Zuzendaritzak ezarritako arauen baitan, goi-agintari eta antolakuntza eginkizunak betetzen dituena da, enpresa bereko edo garrantzi-zentro bateko zerbitzu guztiak koordinatuz, edota enpresa bat egituratu daitekeen zerbitzuetariko baten buru ihardunez.

*Artículo 18.º Revision médica.*

Las empresas, con carácter anual, someterán a los trabajadores de su plantilla, a una revisión médica, que como mínimo comprenderá los siguientes aspectos:

Aparato respiratorio:

— Rayos X.

— Auscultación.

Aparato circulatorio:

— Tensión arterial.

Aparato digestivo:

— Estómago.

— Hígado.

— Hernias.

Análisis:

— De sangre: Hematíes, Leucocitos, Colesterol, Acido Úrico, Glucosa, G.T.P. y G.O.T.

— De orina: Albúmina, Sedimento, Acetona y Glucosa.

— Electrocardiograma.

Ginecología:

— Citología.

— Mamografía.

*Artículo 19.º Idiomas.*

Las empresas abonarán el 50 por ciento de los costes de aprendizaje de idiomas, previo pago del empleado y justificación de asistencia y aprovechamiento, siempre y cuando los cursos se realicen fuera de la jornada laboral.

Estas subvenciones estarán limitadas al euskara y los idiomas principales de los Estados de la Comunidad Económica Europea.

En el supuesto de que el trabajador no posea conocimientos de uno o varios idiomas y sea requerido por la empresa para hacer uso de ellos en el desempeño de su actividad laboral, percibirá por cuenta de la empresa, los cursillos necesarios, hasta el perfecto conocimiento de los idiomas requeridos.

*Artículo 20.º Euskara.*

Las empresas vinculadas al presente Convenio Provincial irán paulatinamente y conforme a sus nuevas necesidades, poniendo en bilingüe, la documentación existente en la misma (nóminas, cartas, papel impreso, talones, etc.) así como también los rótulos y anuncios.

*Artículo 21.º Ropa de trabajo.*

La empresa proveerá, a los trabajadores de Almacén, de la ropa adecuada para realizar las tareas laborales.

## CAPITULO V

*Artículo 22.º Definición de categoría.*

— Jefe de servicio.

Es el que con propia iniciativa y dentro de las normas dictadas por la Dirección de la Empresa, ejerce funciones de alto mando y organización, coordinando todos los servicios de una misma empresa o centro de importancia, o estando al frente de uno de los servicios en que pueda estructurarse una empresa.

— Tituludunak eta Lizentziatuak.

Goi-mailako titulu akademiko baten jabe izanik, titulazioaren bere-bereak diren funtzioak, aginteaz ala gabe, enpresan betetzen dituena.

— Maila ertaineko tituludunak.

Gradu ertaineko titulu akademikoa izanik, bere titulazioaren funtzioak enpresan betetzen dituena.

— Administrazio, ekoizpen eta komertzialeko pertsonala.

I) Administrariak.

— Kontabilitate Saileko Burua:

Gaituriko enplegatua da, botere edo botererik gabe, goiko buruaren, balego, aginduetara diharduena, eta enpresako kontabilitate eta administrazio zerbitzuaren ardura zuzena duena. Atzerriko hizkuntza baten ezagutza izango du.

— Lehen mailako Ofizial Administraria:

Merkataritza jarduerarako behar diren ezagutza tekniko eta praktikoak dituzten haiek dira, eta ekimen propioa eskatzen duten lanak burutzen dituzte, hots, korrespondentziaren idazketa edo garraioetako merkataritza kontratuak, estatistikak, txostenen kudeaketa, kontabilitate liburuen transkripzioa, etab.

— Bigarren mailako Ofizial Administraria:

Kategoria honetan sartzen dira ekimen eta erantzukizun mugatua izanik eta buru baten edo lehen mailako baten, balego, menpean egonik, teknika administratiboko ezagutza orokorrak baizik eskatzen ez dituen bigarren mailako lanak burutzen dituztenak.

— Lehen mailako Administrari Laguntzailea:

Espezialitaterik ez duen langilea da, garraio kontratuetaz bezala kontabilitate eta administrazio tekniken ezagutza orokorraz ere.

— Bigarren mailako Administrari Laguntzailea:

Kategoria honetan sartzen dira aurrekoetan azaldutakoak ematen duen lana burutzen dutenak edo izaera erabat mekanikoa dutenak.

II) Ekoizpena.

— Inportazio-Esportazio Saileko Burua:

Bere erantzukizun zuzenaren pean, ekoizpen departamendua daraman langilea da, inportazio-esportazio eragiketak bideratuz eta berrikuskatuz, bere kargura aipatu departamenduko pertsonala duelarik. Garatzen duen trafikoarekin zerikusia duten bi hizkuntza edo gehiagoren ezagutza beharko du izan.

— Linea Burua:

Bere erantzukizun zuzenaren pean eta Saileko Buruaren aginduak jasoz, linea jakin batzuen langile arduraduna da, atzerrian garatzen dituen eragiketekin zerikusia duten bi hizkuntzaren ezagutza beharko duelarik izan.

— 1. mailako Ofiziala:

Merkataritzako jarduerarako ezagutza tekniko eta praktikoen ezagutza izanik, ekimen propioa eskatzen duten lanak burutzen dituztenak dira, hala nola dokumentuen idazketa, garraio-kontratuak, txostenen kudeaketa, etab eta hala behar izanez gero Linea Burua ordezkatuz. Garatzen duen lanarekin zerikusia duen hizkuntza baten ezagutza izango du.

— Titulados y licenciados:

Es quien en posesión de título académico superior, desempeña en la empresa funciones, con mando o sin él, propias de su titulación.

— Titulados de grado medio:

Es quien en posesión de título académico de grado medio, desempeña en la empresa funciones de su titulación.

— Personal administrativo, produccion y comercial:

I) Administrativo.

— Jefe del Departamento de Contabilidad:

Es el empleado capacitado provisto o no de poderes que actúa a las órdenes inmediatas del jefe superior, si lo hubiere, y lleve responsabilidad directa del servicio de contabilidad y administración de la empresa. Están en conocimiento de un idioma extranjero.

— Oficial Primera Administrativo:

Son quienes, en posesión de conocimientos técnicos y prácticos necesarios para la vida mercantil, realizan trabajos que requieran propia iniciativa, tales como redacción de correspondencia o de contratos mercantiles de transportes, elaboración de estadísticas, gestión de informes, transcripción de libros de contabilidad, etc.

— Oficial Segunda Administrativo:

Pertenecen a esta categoría, el empleado que con iniciativa y responsabilidades restringidas y subordinado a un jefe u oficial de 1.ª, si lo hubiera, realiza trabajos de carácter secundario que solo exigen conocimientos generales de la técnica administrativa.

— Auxiliar Administrativo 1.ª:

Es aquel operario que carece de especialidad alguna, tanto en contratos de transporte, como de conocimientos generales de la técnica contable y administrativa.

— Auxiliar Administrativo 2.ª:

Integra esta categoría el personal que desarrolla trabajos auxiliares que faciliten lo anteriormente expuesto o que tengan un carácter puramente mecánico.

II) Producción.

— Jefe Departamento Importación - Exportación:

Es el empleado que lleva, bajo su responsabilidad directa el departamento de producción, dirigiendo y supervisando las operaciones de importación y exportación, teniendo a su cargo al personal de dicho departamento. Deberá tener conocimiento de dos idiomas o más, relacionados con el tráfico que desarrolla.

— Jefe de Línea:

Es el operario encargado, bajo su responsabilidad directa y recibiendo órdenes del Jefe de Departamento, de determinadas Líneas debiendo tener conocimiento de dos idiomas relacionados con las operaciones que desarrolla en el extranjero.

— Oficial 1.ª:

Son quienes, en posesión de conocimientos técnicos y prácticos para la actividad mercantil, realizan trabajos que requieren propia iniciativa, tales como redacción de documentos, contratos de transporte, gestión de informes, etc. Pudiendo sustituir al Jefe de Línea si fuese necesario. Tendrán conocimiento de un idioma relacionado con el trabajo que desarrolla.

— 2. mailako Ofiziala:

Kategoria honetan sartzen dira, ekimen eta erantzukizun mugatua izan eta Buru edo 1. mailako Ofizialaren menpean egonik, egongo balira, jardueraren ezagutza orokorrak bakarrik eskatzen dituen bigarren mailako lanak burutzen dituztenak.

— 1. mailako Ekoizpen Laguntzailea:

Kategoria hau osatzen du, aurrekoetan azaldutako lan osagarriak garatzen dituen pertsonalak, inolako ekimenik gabe eta izaera erabat mekanikoa dutelarik.

— 2. mailako Ekoizpen Laguntzailea:

Kategoria honetan sartzen dira aurrekoetan azaldutakoek ematen dituzten lan osagarriak edo izaera erabat mekanikoa garatzen dituztenak.

— Ekoizpen Ordenantza:

Bulego barruan eta kanpoan mandatuak egitera mugatzen den langilea da, hala nola, korrespondentzia jaso eta entregatu, eta dokumentuak, karga eta deskargen kontrola, bai eta bigarren mailako izaera erabat mekanikoa duten beste lan batzuk ere, bere Buruek aginduta.

III) Merkataria.

— Departamendu Komertzialeko Burua:

Zuzeneko ardurapean Departamendu Komertziala gidatzen duena, bere kargura bertako pertsonala edukiz. Bere eginkizunak dira, besteak beste, bezeroekin harreman zuzena izatea, eskaintzak prestatzea, publizitate eta sustapen kanpainak zuzentzea, korresponsalekin harremanak izatea, bezeroen kartera kontrolatzea, etab Garatzen duen lanarekin zerikusia duten atzerriko bi hizkuntza ezagutu beharko ditu.

— Teknikari Komertziala:

Departamendu Komertzialeko Buruaren agindu zuzenetara dagoen langilea da, eta gaitasun osoz eta besteak beste, ondoko eginkizunak betetzen ditu: Bezeroak bilatu eta bisitak egin, publizitate eta sustapen kanpainen informazioa eman, eskaintzak aurkeztu, etab Halaber, gaitasun betea galdatzen duten merkataritza lan haiek guztiak beregain hartuko ditu. Bere lanarekin zerikusia duten atzerriko bi hizkuntzen ezagutza izan beharko du.

Departamendu honetako edozein ofizialek bi hizkuntza edo gehiagoren ezagutza izan eta enpresaren eskariz erabiltzen baditu, Tekniko Komertzialaren kategoria profesionala izango du.

— 1. mailako Ofiziala:

Jarduera komertzialerako ezagutza teknikoak eta praktikoak izanik, ekimen propioa eskatzen duten lanak burutzen dituzten haiek dira, hala nola dokumentuen erredakzioa, garraio kontratuak, txostenen kudeaketa, etab. Garatzen duten lanarekin zerikusia duen hizkuntza baten ezagutza izango du.

— 2. mailako Ofiziala:

Kategoria honetan sartzen da ekimen eta erantzukizun murritza eta Buru edo 1. mailako Ofizial baten menpean egonik, baleude, jardueraren ezagutza orokorrak bakarrik galdatzen dituzten bigarren mailako izaera duten lanak burutzen dituen langilea.

— 1. mailako Komertzial Laguntzailea:

Kategoria hau osatzen dute, aurrekoetan azaldutakoek ematen dituzten lan osagarriak edo izaera erabat mekanikoa duten lanak garatzen dituzten langileek.

— Oficial 2.ª:

Pertenecen a esta categoría, el empleado que con iniciativas y responsabilidades restringidas y subordinado a un Jefe u Oficial de 1.ª, si los hubiere, realiza trabajos de carácter secundario que sólo exigen conocimientos generales de la actividad.

— Auxiliar de Producción de 1.ª:

Componen esta categoría, el personal que desarrolla trabajos auxiliares a los anteriormente expuestos, sin iniciativa alguna y que tienen un carácter marcadamente mecánico.

— Auxiliar de Producción de 2.ª:

Integra esta categoría, el personal que desarrolla trabajos auxiliares que faciliten los anteriormente expuestos o que tengan un carácter puramente mecánico.

— Ordenanza de Producción:

